

## Asel Luzarraga

Sanfermín dende o cortello. A sorprendente mañá dun toro punk

Seis da mañá. Vai un anaco que cantou o galo. Abrín os ollos e sentín os primeiros raios do sol entre as madeiras do cortello. Á miña beira, a familia e os compañeiros do cortello tamén empezan a espertar. Triste e perezosamente. O amigo porco mírame dende a pía. Xa sei rapaz, xa sei o que andas a maquinar. Gracias pola túa solidariedade. Porque a decir verdade, ¿quen de nós ten ganas de espertar está mañá? Aínda así, movo a cola con pachorra, axoto as primeiras moscas, e me incorporo ó día. Racho a tea de araña do sono, ó tempo que un sentimento de rabia apodérase de min, sinto un fondo desexo de cotar contra o peche. Sen embargo, o único que fago é achegarme ata a saída, e deixar que o orballo do prado me aperte. Tampouco tería que queixarme, porque aínda que esteamos pechados, a vida aquí transcorre cómoda e tranquila, podería incluso decir, que nos teñen entre panos. En fin, que non é como vivir en liberdade, pero tampouco podemos facernos unha idea do que iso significa.

Empurro a porta co morro, e salo. O vento é fresco e agradable, pero non tarda en encherse de ecos violentos. En ocasións como esta, abáfame o sentimento de odio que me espertan eses seres que pensan selos nosos donos. De nos ter un pouco de respecto, pecharían a fiestra, ou verían a televisión noutra parte. Pero non. Tódolos anos por estas datas, reúnense na sala e se dispoñen a disfrutar do penoso espectáculo. E tódolos anos, hai algo, unha especie de necesidade morbosa que me empurra ata esta fiestra. Dende alí contemplo ós meus compañeiros, que non por descoñecidos deixan de selo, correndo entre a festa e os berros desencadeados polos humanos, como si tiveran presa por nos torturar. Milleiros de veces pregunteime que pasará polas súas cacholas mentras se precipitan por esas rúas estreitas e escorregadizas. Que pensaría eu, de atoparme con eles.

¿Esquecelo traxecto marcado e non descansar ata ver entre os meus cornos a moitos deses moscóns vermellos e brancos? Non creo que de estares alí se poida matinar moito.

Noto movemento no interior do casarío. Non hai dúbida, todo está disposto para o almorzo sanguento. Non penso presencialo, nin moito menos. Non embargante, as miñas patas lévanme ata alí, involuntariamente. Hai alguen na sala. Tan cedo. É Eneko, o fillo máis xove. Era ó único que non vira fronte do televisor. Non esperaba algo así del. Móvese decidido, case con altivez.

Pero non encende o televisor, se non o ordenador. É un alivio, polo de agora. Sae e volve aparecer cunha cunca na man. ¿Que fará? Aquí estou, fronte da fiestra, como tódolos anos. Pero este comezo é distinto. Oí algo, chégame máis alto de cada vez. Eneko decóbreme e me dirixe un xesto. ¿Que maquina este rapaz? O sinal que sae dende o ordenador cala tódolos demais sons. É musica, e de ese estilo que tanto lle gusta a Eneko e que, queirámolo ou non, tan ben coñece estes lares. Birou a pantalla de xeito que eu pudiera vela. Adícame un novo xesto de complicidade, chosca o ollo. Empezo a entendela, si. De cada vez estou máis a gusto cas imáxenes que me amosa a pantalla. ¡A isto chamo eu celebralos Sanfermíns! Gracias, Eneko, xamáis me fixeran tal agasallo. O xove achégase e senta no marco da fiestra. ¡Só faltan unhas cervezas! Férveme o sangue como hai tempo que non o facía.

Traducido do vasco por Iratxe Retolaza.

San Ferminak kortatik. Zezen punk baten ezusteko goiza

Goizeko seiak. Oilarrak orain dela gutxi jo du. Begiak ireki eta lehen eguzki printzak sentitu ditut kortako oholen artean sartzen. Inguruan familia eta kortakideak ere nagi hasi dira mugtizen. Nagi eta triste. Askatik txerri lagunak neuri begiratu dit lehena. Bai, badakit zer darabilan buruan, motel. Eskerrik asko hire elkartasunagatik. Izan ere, gutariko nork du gaur altxatzeko gogorik? Hala ere, buztana patxadaz astindu, goizeko lehenengo euliak uxatu, eta zutitu egin naiz. Loaren lanbroak desegin ahala amorru etsi bat nagusitu da nitaz, eta adarkadaka kortako atea birrintzeko gogoaz piztu zait. Horren orde, ondoezik hurbildu naiz ate horretara eta zelaitik

ihintzaren agur goibela heldu zait. Alaia izan beharko, izan ohi da, gatibu bizi arren kexa handirik gabe bizi baikara hemen, ia esne mamitan, esan liteke. Tira, ez da aske bizitzea lakoa, baina hori zer den ere ezin begitan dakiguke.

Muturraz atea bultzatu eta irten egin dut. Haize freskoa dakar gaur. Haize honek baina, krudelkeriaren ahotsak ekarriko ditu laster. Holakoetan beren burua gure jabetzat duten gizaki horien aurkako gorrotoak betetzen nau. Aintzat hartuko bagintuzte leioa itxiko lukete, edo telebista goiko solairuan ikusi, behintzat. Baina ez. Urtero, egun hauek iritsita, egongelara bildu eta irrikaz pizten dute telebista ikuskizun negargarri harekin gozatzeko. Eta urtero zerbaitek, bultzada morboso batek, leiho horretarantz narama. Bertan ikusten ditut nire kideak, ezezagunak izanagatik ez baitute kidetasuna galtzen, gizaki eroen aldarri eta barre mozkorren artean arrapaladan, torturatuak izateko presa balute legez. Mila aldiz galdetu diot neure buruari zer pentsamendu ote darabilten kale estu eta irristakor horietatik oldartzen diren bitartean. Zer pentsatuko nuke nik haien artean banengo. Markatutako bidearekin ahaztu eta euli zuri-gorri horietako batzuk adar artean ikusi arte atsedetik ez hartu? Ez dut uste gehiegi pentsa daitekeenik han zaudela.

Mugimendua sumatu dut baserriaren barruan. Zalantza barik, prestatzen hasi dira, odol festa gosariarekin batera irensteko. Ez dut ostabere ikusi gura, ez horixe. Nire gogoz kontra, ordea, hankek harantz bideratzen naute. Norbait ikusi dut egongelan. Goizegi da baina. Eneko da, etxeko seme gaztea. Bera da inoiz telebista aurrean ikusi ez dudana bakarra. Ez nuen harengandik holakorik espero. Gandorra inoiz baino tenteago daroa gero!

Telebista ez, ordenagailua piztu du. Lasaitua hartu dut, momentuz behintzat. Desagertu eta katilu bat eskuan duela itzuli da. Zertan ote dabil? Hemen nago, urtero legez, leihoari itsatsita. Baina hasiera hau desberdina da. Zerbait hasi naiz entzuten, gero eta ozenago. Enekok leihora begiratu eta keinu bat egin dit. Zer ote darabil mutiko honek buruan? Ordenagailutik datorren soinua beste guztiaren gainetik gailendu da. Musika da, Enekok hain gogoko duen eta baserrian nahi ta nahiez denok hain ondo ezagutzen dugun estilokoa. Ordenagailuaren pantaila niri begira ipini du. Berrito keinu konplizea egin dit begi batez. Altxatu eta egongela utzi du, musika baserria dardarka ipintzeko moduan utzita. Ulertzen hasi naiz, bai. Gero eta gusturago ikusten ditut nik pantailak eskaintzen dizkidan irudiak. Hau bai San Ferminak ospatzeko modua! Eskerrik asko, Eneko, ez didate inoiz hau lako oparirik egin. Hona dator mutila, nire ondoan leihoan bermatzera. Garagardo bana baino ez dugu falta! Odola irakiten sentitzen dut aspaldian ez bezala.